



2014KO UZTAILAREN 24KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko uztailaren hogeita lauan, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Joseba Imanol Aran Barandiaran, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Migros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Maialen Aldasoro Aranburu zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2014ko maiatzaren 29an eta ekainaren 26an egindako ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretotik irten egiten da.

III.- KANPANDEGIKO BIRIBILGUNE LANEN 18. OBRA-EGIAZTAGIRIA, LIKIDAZIOA.-

21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-eko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 18. obra-egiaztagiria luzatu dute, lanen likidaziokoa. Lanen 18. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA BERROGEITA HAMALAU ZENTIMOtakoa (370.899,54 €) da. Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresak burutu ditu.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du alde bozkatuko dutela eta ez direla sartuko obrak hasierako proiektuarekiko izandako desbideraketarekin eta hori esatea baino nahia-go dutela ondo gelditu den obra bat dela azpimarratzea.



Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpadegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen 18. obra-egiaztagiria, lanen likidazioarena, onartzea erabakitzen du.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretora itzuli egiten da.

IV.- 2013KO KONTU OROKORRA.-

2013 ekitaldiko Kontu Orokorra, Kontuotarako Batzorde Bereziak 2014ko ekainaren 2an egindako bilkuran aztertu eta informatua izan zen.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2014ko ekainaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2013 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

Kontu Orokor honek udalaren 2013ko Kontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarte anonimoaren 2013ko urteko kontuak hartzen ditu barne.

V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du abstenitu egingo direla, eta hori partida batzuekin ados egonik beste batzuekin ez delako horrela, eta hain zuzen ere baratzetarako partidarena ez dutela garbi ikusten.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du honelakoetan ohiko dutenez alde bozkatuko duela.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (Bildu, PSE), aurkako boturik gabe eta 5 abstentzioz (EAJ), honako hau

ERABAKI DU

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:



KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	46.000,00 €
VI	Inbertsio errealak	100.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		146.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VI	Inbertsio errealeen besterentzea eta	9.000,00 €
VIII	Finantza aktiboak	137.000,00 €
GUZTIRA		146.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- UDALTZAINGOAREN AURRE-JUBILAZIOAREN INGURUKO MOZIOA.-

Alkateak esaten du azkenean, aurrekoan bezala, bi mozio daudela, bat ELAk aurkeztutakoa eta bestea PSEk aurkeztutakoa.

ELAk aurkeztutako mozioak honela dio:

"Lazkaoko udaleko ELAko Atal Sindikalak, bere afiliatu direnen ordezkari izanik, udaleko talde politikoek ondorengo MOZIO hau zuena egin eta plenuan eztabaida eta bozketarako aurkezteko eskatzen du.

UDALTZAINGOAREN AURRE-JUBILAZIOAREN INGURUKO MOZIOA

Jakingo duzuen moduan, 2008 urtean (martxoaren 14ko 383/2008 Erret Dekretua), Suhil-tzaileek, 60 urterekin jubilatzen ahal izateko eskubidea lortu zuten, beraien lanaren egoerak kontutan hartuta.

Era berean, 2009 urtean, EAJ-PNV eta PSOEek Madrilgo Parlamentuan eginiko akordio baten bitartez, Ertzaintzarentzako 60 urterekin aurrejubilatzen eskubidea lortu zen, hau ere, poliziek egiten duten lanaren ezaugarriak kontutan hartuta. Akordio honek, 2010ean izan zuen efektu data, Seguritasun Sozialaren gaien materiak arautzen dituen abenduaren

4ko 40/2007 Legean, jubilatzeke adinean aplikatzen diren murrizketa koefizienteen ingurukoan zuzenki, aldaketa batzuk sartuta.

Ulegaitza den arren, sinatzaileek ez zuten Euskal Polizia legeak esaten duena kontuan izan eta akordio horrek ez zuen Euskal Udaltzaingoa kontuan hartu. Lege horrek argi esaten du, EUSKAL POLIZIA, Ertzaintzak eta Udaltzaingoei osatzen dutela eta bi poliziek egiten duten lana antzerakoa dela, bai funtzioetan, baita gaikuntza profesionaletan ere.

Lege aldaketa hau justua eta behar beharrezkoa zen, izan ere polizia ogibidea, bereziki zaurgarria eta bere lan-bizitza benetako egoerara doitu beharrezkoa zela argi utzi baitzuen. Egoera hau Gizarte Segurantzako Lege Orokorrek bere 161.1 bis artikuluan babesten du, "bereziki penagarriak, toxiko, arriskutsu eta osasunaren kalterako" diren ogibideen eta "heriotz tasa altuak" dauzkaten ogibideak koefiziente murriztaile hauek aplikatuko zaizkela.

Esandako koefiziente murriztaileak aplikatzeak, sektorean dagoen penositate, arrisku eta toxikotasunaren gaineko lanak egitea exijitzen du, langileek izaten dituzten behin behineko ezgaitasunetan dauzkaten eragina eta esandako lana egiteko eskatutako baldintzen gaineko lanak egitea ere exijitzen du.

Unibertsitate ezberdinek, udaltzainen eta polizia autonomikoen inguruan egin dituzten ikerketen arabera, arrisku eta penositate zantzuak daudela esaten dute eguneroko lanean eta lanpostu hauek sartzeko eta eguneroko lana normaltasunez egiteko eskakizun psikofisikoak kontutan hartuta, adin batetik aurrera ezin dela lanpostu honetan normaltasunez lan egin ere esaten dute. Era honetan, legediak jubilatzeke murrizketa koefizienteak izateko baldintzak guztiz betetzen dira.

Polizia lana arriskutsutzat jotzen den lana dela inork ez du eztabaidatzen jada, menpe dagoen instituzioa edozein izanda ere: legediak, eginiko ikerketa lanek, lanean, adinean aurrera joateak daukan eragina (batez ere hiri handietan), etab. jubilatzeke adina aurreraztearen alde egiten dute.

Europa erreferentziatzat hartzen badugu, herrialde gehienetako polizien erretiratzeko baldintzak moztu honetan eskatzen denaren ildoan daude: Alemanian, 55 eta 60 urte artean jubilatzen dira; Belgikan 54 urtetik aurrera; Grezian 55 urterekin; Ipar Irlandan 35 urteko aintzinasuna hartzean; Italian, Norbegian bezala, 60 urterekin eta Erresuma Batuan 57 urterekin.

Oreka ekonomiko eta finantziarioari begiratu gero, aipaturiko legeak (Gizarte Segurantzako gaien inguruko abenduaren 4ko 40/2007 Legea) bere bigarren xedapen gehigarrian, erretiro adinerako koefiziente murriztaileen inguruan zera esaten du: "Erretiro adinaren koefiziente murriztaileen ezarpena lan baldintzen aldaketa ezinezkoa denean bakarrik izango da bidezkoa eta finantza oreka bermatzeko beharrezko doikuntzak eramango ditu berekin". Gizarte Segurantzaren egin beharrezko doikuntza horiek, Udaltzainek beraiek eta lana egiten duten administrazioek bere gain hartu beharko dituzte, Gizarte Segurantzara egin beharrezko beraien atxikipenak handituz.

Ildo honetan, kostuen inguruko eguneraketa ikerketak, neurri hau hartzeak ekartzen dituen onuren inguruko edozein zalantza bertan behera uzten du. Udaltzainen erretiro adina aurreratzek dakartzan Gizarte Segurantza kostuak igoko balira ere, plantilen gatzetzea



ekarriko luke nahitaez eta ondorioz, absentismo eta behin behineko ezgaitasunen gutxitzea. Langile eta zerbitzuen errendimendua hobetzea ekarriko luke honek eta era berean hiritarrei zerbitzu hobe bat eskaintzeko puntu hobean jarriko luke instituzioa, baldintza psikofisiko hobeak izateak, Hiritarrentzako Segurtasunean eragin zuzena dauka eta.

Gainera, gogoratu behar dugu apirilaren 12ko 1/2007 Legeak, Langile Publikoaren Oinarriko Estatutuak, zera esaten duela bere seigarren xedapen gehigarrian: "(...) Gobernuak funtzionarioek erretiroa hartzeko dauzkaten araubide ezberdinen azterketa aurkeztuko du Diputatuen Kongresuan eta azterketa honek, besterik beste, antzeko ezaugarriak dituzten kolektiboen arteko diskriminaziorik egon ez dadin eta zenbait kolektiboen aurreratutako erretirora heltzeko egokitasuna handitzearen aukerari buruzko aholkuak jasoko ditu (...)"

EAEko datuei begiratuta, udalerrri guztiak kontutan hartuta dauden 3.300 udaltzain ingurutik, 500 baino gehiagok 60 eta 65 urte bitartean edukiko dituzten hurrengo bost urteetan, hau da, %17a lehenago jubilatzeko adinean egongo da eta beste 600 baino gehiagok 55 urte baino gehiago izango dituzte.

Udaltzainen aurre jubilazio honek, gainera, enplegu sorrera garrantzitsua ekarriko luke, gazteei lan merkatuak sarrera ahalbidetuko lioke, eta hau, enplegu sorrera izan beharko litzateke edozein instituzio publikoren oinarri garrantzitsuenetako bat. Azpimarratu behar dugu, aurre jubilazio honen helburu inoiz ezin dela izan lanpostuen amortizazioa, eta lanpostu horrek duina, egonkorra eta kalitatezkoa beharko lukeela.

Gainera, langileen gaztetzea ere ahalbidetuko luke, instituzioek langile aktibagoak izango litzateke eta honek, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea ekarriko luke.

ELAk askotan salatu du Euskal Herriko Udaltzaintzako, Ertzaintzak (eta beste polizia batzuk) aurre jubilatzeko aukera edukitzeak suposatzen duen marjinazioa. Honek, erregulazio baten beharra dagoela berretsi bestetik ez du egiten eta era berean euskal udaltzainak Ertzaintzak eta beste polizia batzuek daukaten baldintzetara ekiparatu beharra. Arrisku berberak, estaldura berbera.

Orain arte esandako guztiz kontutan hartuta, ELAk, Euskal Udaltzaingoaren erretirorako baldintzak Ertzainak daukanarekiko ekiparatzea eskatzen du, erretiro adinaren erregulazioan aldaketa bat eginda. Honetarako Erret Dekretu bat egin beharko litzateke euskal udaltzaingoari ere erretirorako adinean koefiziente murriztaile bat aplikatu ahal izateko.

Horregatik, ELAko Atal Sindikala, mozio hau udal talde guztiek bere egitea eskatzen dugu, plenuan eztabaidatu eta bozkatu ahal izateko.

Aurrez esandako guztiagatik, AKORDIO hauek proposatzen dira, onartuak izan daitezten.

1. Lazkaoko udala, Gizarte Segurantzaren gaineko egungo legedia aldatzeko prozesua zabaltearen alde azaltzen da, Euskal udaltzainei aurre jubilatzeko koefiziente murriztaileak aplikatu ahal izateko, Ertzaintzak daukan baldintza berdinetan, 1/1994 Erret De-



kretu Arautzaileko berrogeitabostgarren xedapen gehigarrian jasotzen den bezala zeinak abenduaren 4ko 40/2007 Legea onartzea ahalbidetzen duena.

2. Lazkaoko udalak, Eusko Legebiltzarrari agindu ematen dio, era berean Espainiako Gobernua premiatzeko Gizarte Segurantzaren gaitako egungo legediaren aldaketa prozesua hasi dezan euskal udaltzainei aurre jubilatzeko koefiziente murriztaileak aplikatu ahal izateko, Ertzaintzak daukan baldintza berdinetan, 1/1994 Erret Dekretu Arautzaileko berrogeitabostgarren xedapen gehigarrian jasotzen den bezala zeinak abenduaren 4ko 40/2007 Legea onartzea ahalbidetzen duena.
3. Lazkaoko udalak, Euskal Udalen elkarteei (EUDEL eta UDALBILTZA) agindu ematen die ekintza honi babesa emateko eta ordua helduta berau aurrera eramateko datu eta dokumentuak eman ditzaten.

Lazkaoko udaleko ELAko Atal Sindikal"

PSEk aurkeztutako mozioak honela dio:

"UDALTZAINGOAREN ERRETIRATZE ADINAREN AURRERAPEN
INGURUAN UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA

ZIO-AZALPENA

2008 urtean (martxoaren 14ko 383/2008 Errege Dekretua), suhiltzaileek 60 urterekin jubilatzen ahal izateko eskubidea lortu zuten, beraien lanaren jardura kontutan hartuta.

Era berean, Sozialista (PSOE) eta Euskal Nazionalista (EAJ-PNV) parlamentuko taldeek aurkeztutako zuzenketaren bidez, 2010 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrek, abenduaren 4ko 40/2007 Legea aldatu zuten, Gizarte-Segurantzaren kontuetako neurriena, jubilatzeko adinean aplikatzen diren murrizketa koefizienteen ingurukoa. Aldaketa honek Ertzaintzak 60 urterekin erretiro aurreratua lortzea ekarri zuen, polizia taldeak egiten duen lanaren ezaugarriak kontutan hartuta ere.

Justua eta beharrezkoa den lege aldaketa honek, polizia ogibidea bereziki zaugarria eta bere lan-bizitza benetako egoerara doitu beharrezkoa zela onartzen zuen, egoera hau Gizarte Segurantzako Lege Orokorrek babesten du, bere 161.1 bis artikuluan "erikortasun edo heriotza indize altuak" izan eta "bereziki penagarriak, toxiko, arriskutsu eta osasun kalterako" diren ogibideak babesten baititu.

Koefiziente murriztaileen esandako ezarpenak sektorean dagoen ezbehar-kopuru, lan-baldintzetako nekagarritasuna, arriskugarritasuna eta toxikotasunari buruz, hala nola langileengan sortzen duen lanerako ezintasun prozesuetan eragina eta aipaturiko jardura garatzeko exijitutako eskakizun fisikoei buruzko aurretiko azterketak egitea eta exijitzea dakar.

Udaltzaingoaren inguruan, erakunde ezberdinek egindako azterketetatik, jardura garatzeko arriskugarritasun eta nekagarritasun aztarnak daudela ondorioztatzen da eta kolektiboan sartzeko eta langile-bizitza garatzeko exijitzen diren eskakizun psikofisikoak adin jakin batetik aurrera ezin dira egin, era honetara salbuespenezko neketsu, toxiko, arriskutsu edo osasungaitz izaera duten lanak egitearen ondorioz, erretiratze adinaren aurrerapenerako legediak eskatutako betebeharrak betetzen direlarik.



Polizia lanbidea, edozein dela sail organikoa ere, arrisku-lanbidea dela ez da dagoeneko eztabaidatzen; legediak, egindako azterketek, lanbide garapenean eskarmentuak, bereziki hiri handietan, erretiratze adinaren aurrerapena bermatzen dute.

Estatuaren beste Segurtasun Gorputzetan erretiratze aurreratua izateak, baita aipaturiko Euskal Polizia Autonomoa (Ertzaintza) barneratzeak, arautze beharra eta parekotasunengatik gainerako poliziengandik ez diskriminatzea berretsi besterik ez du egiten.

Guzti honengatik, udal talde sozialistak ondorengo Mozio hau aurkezten dio Osoko Bilkurari bere onarpenerako:

1. Osoko Bilkurak Gizarte Segurantzaren Estatuko Idazkaritzari, Gizarte Segurantzaren Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari, EUDELI eta FEMPI eskatzen die Diputatu Kongresuan Gizarte Segurantzaren gaietan lege aldaketa proposatzea, udaltzainen erretiratze adina aurreratzea onar dezan, ondorengo neurri honen onarpenaren bidez:
 - Estatuko Udaltzaingoaren Gorputzetan jubilatze adina aplikatzen diren murrizketa koefizienteak ezartzea, 1/1994 Lege Errege Dekretuaren, Gizarte Segurantzaren gaien neurrikoa den abenduaren 7ko 40/2007 Legeak barneratuta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren bategindako testua onartuz Berrogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian aurrikusitako baldintza beretan.
2. Osoko Bilkurak Espainiako Gobernuari poliziaren lanbidea arriskugarri aitortzea eskatzen dio, eta, ondorioz, osasuna babesteko helburuarekin eta sektorean dagoen ezbehar-kopurua, lan-baldintzetako nekagarritasuna, arriskugarritasuna eta toxikotasuna, hala nola lanerako ezintasun prozesuetan sortzen duen eragina eta polizia lana garatzeko exijitutako eskakizunak kontutan ez duen erretiratze adinaren zuzengabekeriari amaiera emateko, gaixotasun profesionalen katalogoa idaztea."

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du gai honen inguruan bilera batetarako deia jaso zai egon direla baina ez dutela horrelakorik izan.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ELAko ordezkari batekin bildu zela baina azkenean ere ez dela adostasunik lortu.

Estensoro zinegotziak esaten du ez diotela buelta gehiago emango gaiari eta ELAko mozioa onartu egingo dutela.

Serna zinegotziak esaten du ELAko mozioaren aurrean abstenitu egingo dela, beraien aurkeztutakoa egokiagoa dela iruditzen zaiolako.

Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du ELAko mozioaren alde bozkatu dutela nahiz eta aldarrikapen batzuk falta direla ikusi. PSEren mozioari dagokionean, esaten du aurka bozkaturiko dutela antzeko mozioa izanik ere eskariak Espainiako gobernuari egiten dizkiolako eta ez hemengo gobernuari.



Serna zinegotziak, Bildukoei erantzunez, esaten du errealitatea dagoena dela eta horren aurrean ezikusiarena egitea ez dela irtenbidea.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du PSEren mozioaren aurrean abstenitu egingo dela eta esan nahi duela baita ere osoko bilkurarako jasotako dokumentuen artean ez du-tela PSEren mozioa jaso.

Dagozkion argibideak eman ondoren, alkateak, gaia bozketan jartzen du ondoren-go emaitzekin:

ELAren mozioa onartu egiten da aldeko 11 botu (Bildu, EAJ), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE).

PSEren mozioa baztertu egiten da aldeko botu bat (PSE-EE) aurkako 6 botu (Bildu) eta 5 abstentziaz (EAJ).

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkatearen baimenarekin jendartetik lagun batek hitzegiten du.

Alkateak erantzun egiten dio mintzaldian planteatutakoa aztertuko dela esanez.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpiak eta zortzi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

